

Haizearen norabidea ez da aldatu

Urritik hona, Lizarra-Garaziren aldekoak eta kontrakoak berdin jeitsi dira (%7).

EAJ-Earen galera prozesuaren ondorio baino gehiago, faktore endogenoekin lotura duela dirudi.

Igandeko hauteskundeetako emaitzen azterketa benetan korapilatsua da, eta ez da harritzekoa alderdi batzuek nahikoa denbora hartzea zehatz-mehatz aztertzeko. Azkarren ibili direnek, PPK eta PSOEk, interes berezia izan dute irakurketa interesatuak egiteko. Izan ere, Lizarra-Garaziko akordioari buruz ondorioak ateratzeko erabili dute 1995 eta 1999ko hauteskundeetako emaitzen alderatzea, eta hori ez da zilegi, Lizarra-Garazi 1998koa baita.


Datu xeheetan sartu baino lehenago alde orokor batzuk kontuan hartu behar dira. Urritik hona mapa politiko erlatiboak bere horretan jarraitzen du. EAEko Parlamenturako hauteskundeetako emaitzak eta eremu bereko emaitza berrien arabera, EAJ-EA-EH eta PP-PSOE multzoen arteko indar korrelazioa berdintsua da. Bi multzoak neurri berean jaitsi dira. Foru hauteskundeetako emaitzak oinarritzat harturik, abertzaleak 679.522 bototik 630.955 botoratu dira, %7,14 jaitsiz. Espainazaleak 469.187tik 432.891ra iragan dira, %7,73 jaitsiz. Partehartzea %5 txikiagoa izan dela kontuan hartuta, jaitsiera hori minimoa da. Abertzaleen kasuan zehaztu beharra dago galera guztia EAJ-EA koalizioari dagokiola, EHk 1998ko urritik 5.593 boto irabazi baititu. PP eta PSE-EEren kasuan biak jaitsi dira.

Lizarra-Garazi


Lizarra-Garaziko akordioa parametro gisa hartuta, kontuak sinatzaileen alde ateratzen dira. Zenbaki absolutuetan, boto gehiago galdu arren, erlatiboetan hiru dezima irabazi baitituzte. Aldekoak 750.026 (%60,74) bototik 695.026 (%61,10) botoratu dira. Kontrakoak, berriz, 484.909 (%39,25) bototik 442.330 (%38,9) botoratu. Beraz, ezin da inolaz ere esan Lizarra-Garazi ahulduta atera dela hauteskundeetatik, berdintsu baizik. Arabako kasua aipagarria da, Lizarra-Garaziren aldekoak

Alderdien gora-beheren alderaketa

Araba



Gipuzkoa




Zenbaki guztiak


	1995	1999	Aldeak	Gehikuntza
EAJ-EA	44.105	40.365	-3.740	-8,5%
PP	44.575	25.080	-19.495	-43,7%
PSE-EE	26.002	21.055	-4.947	-18,9%
EH	21.164	13.212	-7.952	-37,6%
UI	7.100	11.230	+4.130	+58,2%
UA	9.420	24.442	+15.022	+159,6%

	1995	1999	Aldeak	Gehikuntza
EAJ-EA	130.185	143.101	+12.916	+9,9%
PP	55.032	47.254	-7.778	-14,1%
PSE-EE	68.222	62.379	-5.843	-8,6%
EH	105.415	75.120	-30.295	-28,7%
UI	13.365	22.709	+9.344	+70,0%

Bizkaia



Nafarroa




	1995	1999	Aldeak	Gehikuntza
EAJ-EA	227.718	244.237	+16.519	+7,3%
PP	121.025	80.344	-40.681	-33,6%
PSE-EE	117.845	102.570	-15.275	-12,9%
EH	102.278	72.145	-30.133	-29,4%
UI	32.713	36.411	+3.698	+11,3%
CD N	82.54	20.228	-62.312	-75,5%

	1995	1999	Aldeak	Gehikuntza
EAJ-EA	16.203	16.511	+308	+1,9%
UPN	125.414	83.163	-42.251	-33,7%
PSN	61.283	62.021	+738	+1,2%
EH	47.190	27.404	-19.786	-42,1%
UI	20.893	27.773	+6.880	+32,9%
CD N	20.780	55.153	+34.373	+165,4%

Hego Euskal Herria

	1995	1999	Aldeak	Gehikuntza
EAJ-EA	418.491	453.410	+34.919	+8,3%
PP/UPN	346.046	264.841	-81.205	-23,5%
PSE-EE/PSN	273.642	248.025	-25.617	-9,4%
EH	276.047	187.994	-88.053	-31,9%
UI	74.401	118.223	+43.822	+58,9%

	1995	1999	Aldeak	Gehikuntza
EAJ-EA	418.491	453.410	+34.919	+8,3%
PP/UPN	346.046	264.841	-81.205	-23,5%
PSE-EE/PSN	273.642	248.025	-25.617	-9,4%
EH	276.047	187.994	-88.053	-31,9%
UI	74.401	118.223	+43.822	+58,9%



J. ARIAS

nabarmen gutxitu baitute bien arteko aldea, 4.483 boto irabaziz, kontrakoek 8.019 boto galdu dituzte, ordea. Beste era batera esanda, joan

den urrian bien arteko tartea 20.099 botokoa zen, ekainaren 13an, ordea, soilik 7.557 botokoa da (oraindik, kontrakoek alde).

Kontuan hartu beharreko beste datu bat oraingo parte hartzea duela lau urteko udal eta foru hauteskundeetako bako handiagoa izan dela,

agian Europako hauteskundeak batera egin direlako eta horrek, PP/PSOE lehiak, hautesle gehiago mugitu dituelako. Ez da ahaztu